

Geixorik.

Ikurton deunak artuta geixorik auritzen da Ugariza'tar Maurizioo. Aint lasteren osatutia opa deusat.

Juan-etorriak.

Gure artetik Gernika aldera joan a Kareaga'tar Luzia, baña Luzia orososolustuari ez egin jaramonik eta emengo abertzaliakin safi gomutau. Guda-ontzitik etofita emen dago Obieta'tar Peli ila betetako. Ondo etofia.

Deun Andoni eguna dala-ta, Urkiola'ra emendik joan ziran Olaria'tar Gergori eta bere emazte Obieta'tar sidore, baita Goitisoloko basefietzeko amerikana Silonis'tar Andoni. Zorionak eurori.

Azketsi, Kurutze-gane eta Musturtxu, ezetan iraindu bazaituet; ezta neure gogoa lagun maiteak zeuek meugaitik atsekabez egotea. Amaizera nua, neure irakurleak gogait egin eztaizuen. Azketsi txarto idazten dodalako; gaur da lenengoz lan onetarako zotz au eskuan artun dodala; ufengoan obeto «agur».

UR-GOZOA

Lenengorako polito dago. Jafaitu ta ikasi dozu. Ufengoan zeure izena ta zuzenbidia emon biar daustazuz, neuk bakarrik jakiteko.

Zeanuri.**Andoni Deuna.**

Igandean iragafi zan lez beko elehan egon ziran elizkizunak, mesa abestua Goikoetxea'rena ta itzaldia urtero lez.

Amaiketean Efoetaetxe'n ermitatxo bafien onespen edo benedeziñora lagun asko bildu zan. Ta jaupa aufetik Hermandade bakotxetik ekafi ebezan jaupariak bedeinkatu ebazan aberiak.

Afatsaldean goxean baño be euria ugariago yauzten zan, baña a ta gusti be Afati'ko soñulariak bilduko zirañ ta yente asko etofen alde guztietatik. Emakume ta gizeonezkoak Zeya'tik urten txistulari ta albokaria'kaz eta Efoetaetxe'n jauregi-aufean abestu zan «Agur Jaunak» eta beste abesti batzuk euzkeraz... Ondoren Udai-etxeko balkoitik itz-neurtuak oso politak abestu ebezan Sagarna'tar Jon eta Ufeta anderañoak.

Arentza Erobatibea.

18'an sapatuan yoango da J. L. emendik erobatibea Urkiolara.

Nazkaldia.

Oleaga'tar Nazari jaunaren sendikoak egunotan etofi dira.

Madrid'etik egunotan dator Zulu'a'tar Bingen osagilea.

Bilbo'tik eta Valladolid'tik Arana eta Mugarza ikasleak.

Autezkundeak (Botaziñoa).

Garila'ren 3'n izango da Estatutoen alde egingo dana Euzkadi'ko 4 probintzietan. Ementxe agertu bear yako Gobernuari guk geure eskubideak gura doguzala. Eta aiko-maikoetan ibili barik, gustiak autarkia emon bear dabe egun ofetan. Autarkia edo botoa emon barik geratuko balitzake baten bat, ofek gizon ofek euzkeldun ixena eleuke bearko.

Urkiola'ra Deun Andoniz.

Eguraldia be ona ta yenteak be gurari bizia euken Afati'ko soñulariak batera ikusteko ta Dima'tik agertu ziran belbil bi goxean emen. Eurontan etozan Dima'ko ta beste etifako albokari ta txistulariak emengoak igonda danak batera Urkiolara.

Abadiño'ko Udai prestuak gertakizunak egin ebazan ondo artzoko ain begiko egin diran soñulariak eta berarizko lekuak ipiñi ebazan eurontzako. Egun guztiz zoragafi eta erakutsi andikoa igaro eben bertan, dantza garbi osasuntsua egiñik egon ziran aldi guztian, erdu ziran yente guztia mirariturik ango edertasunaz.

Onantzean Otxandio, Afese-Betia

olerkari ospetsuaren efi begikoan, ordu bete igaro eben, bertako biztanleak zegaz ordaindu ezekiela egozan ain ederto safera egin eben efi aretan.

Zorionak emengo udal gizon eta laguntzale gustiai.

Emen safera itzala egin eben txistulari, alboka ta enpaduak ilunkeran.

BASERI'TAR BAT**Bolibar.****Eleizkizunak.**

Igaro dan domekan ospatu genduan Josu'ren Biotzaren eguna. Zapatu afatsian ta domeka goixean, naiko zeregin izandu zuten gure abadiak, bada iñoiz ezagutu ez dan beste notin izandu zan aitortzen ta Gure Jauna artzen. Domeka goxeko sei ta zazpiretan izan genduzan Jaunartze orokofak. Afatsaldeko iruterdietan izandu zan eleizkizuna Gure Jauna agirian zala.

Markiñatik etofi zan A. Jazinto karmeldafak egin eban itzaldi edefan, azualo zizkigun Josu'ren gubanako ezaugafi agirienak.

Gure txauburu dan Ugartetxea'tar Domekak berak, dakin lez, umetxuai abesti befi polit bat erakutsi zien egun ofetarako, ta bai umetxoak polito abestu ere.

Astelenian amaitu zan Antonio Deunaren bederatziefena. Etzirudin aste eguna, bada ainbeste lagunaz bete arkitzen zan eleiza.

Urteroko oitura dan lez, aurten ere edozenbat lagun izandu ziran Urkiolan.

Osatzen.

Obetoxeagoa doye Afiola'tar Mari Jesus «Martitegi» basefiko neskatilatxoa.

Dabiltzanak.

Satufaran'go ikastetxean (Seminarion) bigafen urteko ikaskizunak ondo amaituta, opor-egunak gurasuen onduan igarotzera etofi da Urionabafenetxea'tar Eduardo. Jaupalgai (seminarista) gaztea da oraindik, baño bai argi ta arduratsua. Zorionak. Gernikatik Urkidi'tar Joxe.

Baita ere gure artean arkitzen da Alberdi'tar Ambrosio.

Egun batzuk igaro dira agurtu genduala aztu ezin dogun gure adizkide Untzeta'tar Mirentxu andereñoa, Iruzubita auxo-ikastolako irakasle izandua. Poz aundia eman ziguzun emen ikuziar batera, bada zaleturik gengoan zuregaz itz azpeltu bat egiteko.

Uste genduan betiko aztu zifala, bañan ez; ondo adierazi zenduan oraindik ere txoko ontako basterxoak gogoan daukatzula. Ia ufengo noiz etortzen zeran asti geyagogaz.

Gure eriko jayak.

Uferatzen ari dira gure efiko jayak. Laister dator San Juan eguna. Aurten entzun degu berebiziko jolasak izango emen dirala, probak, pelota-joku, soñua ugari ta abar; egi bat esan, pozafen gaude alaitu igaroteko egun oyeak. ¡Gorputzak artu bear duen!, atsedena iru jai ezezkadau... ¡au dek aul ¡Baldinbait ere ordurako, orain enparantzan arkitzen diraden olak kenduko ete dituzte! Inguruetado efiak. badakizute nora etofi ondo jolastu nai badezute.

Gerikaiz'ko Jayo'tar Antonio'ri.

Azpalditxo ontan zer gertatzen zaizu? ¿Orko gora-berak ez aldira jakin bear? Ez dakigu ba zer esan zñagitu edo luma uertu? Onen beafean arkitzen bazera beintzat, nundik edo andik sortuko genduke. Ain polito asi zifan orko befiak «Ekin» en ipintzen ta... orain uts... Tira tira, nagikeria alde batera utzi ta orko befiak ematen dizkigutun. Guk pozik irakufiko ditugu.

Mañari.**Juan-Etorriak.**

Bilbao'tik etofi zan udaldija igaroten, Bañenetxea'tar Ander; Eibar'tik alditxu bat igaroten, Usaola'tar Birkide anderea. Igarotako astian egon ziran emen, Rui-Wamba'tar Pilomen eta emaztia, Lexona'tik etofita, egun bat edo bijan emen egon da, Etxebafia'tar Markelin gixon gaztia.

¡Ederto!

Igandian, gure azkonar-mutilxuoak, Euzko-Araudija edo Estatutoaren aldeko ingijak zabaltzen zintzo ibili ziran. ¡Olanxe mutilak! Geure Abefijaren alde zintzo jokatu; naiz-ta, Peru lako mutilak, zuek egiñen dozuen lanaren aurka ibili... Zuek, mutilak, olangoetan beti aufera jafaitu; safitan ba, «temosua» izatetik be onura andiak etorten dozak-eta... Gauzia zuzena danian beintzat bai.

Andoni Deuna.

Deun andi onen egunian, emeko Kurutze-Deuna-elixatxuan, deunaren aldaria argi ta loraz ederto apaindu ta zala, meza abestua emon zan. Jente asko bertaratu zan; eta Jaunartziak be asko egin ziran.

Egun ofetan, beti lez, Urkiola'ra jente asko be asko juañ zan; eta ango deunetxe entzutetsuban, elizkizun eder-edefak egin ziran.

Eta, aurten, egundo Urkiola'n ikusi eztogun lako eromeri txukuna egin da, Afatijafak eralduriko dantzaketia ikusgafi egoan; ainbeste ta ainbeste gaztek, dantza zikiñak alde batera itxita, geure asabaen erako eromeri garbija egiñaz, egokiro jolastzen inardu eben-eta. Geure zorionak, afatiar soñulari zintzuori.

Palta ziranak...

Igande afatsaldian, Paraon'en gudarostia, itxaroten zan lez, Urkiola'ranta etofi zan. Beti lez, burdi asto, zaldi ta txakur eta gusti, «ekertzitu» sendo ta ornidua agertu zan. Eta guztijak, arpegi «intelligentiakaz» bizkor igaro ziran; zer afapau dagoan leku an, gudaketan asteko moduan...

Aspalditxuan baño, eurein artian, utsune bat nabaitzen dogu. Arako Efamuntxo, emeko jentiar ainbeste bafe eragiten eutson ijitano gazte euzkelduna, urte bi onetan eztogu ikusi bera... Nun ete da? Kanpotik ala bafutik ete...? Jakin biarko da.

MAÑARIKO**Lezama.****Beti zintzo.**

Guztiz eleizkizun edefa domeka afatzaldekoa; auzo-erbestean eromeriyak izanafen, guk, Mariaren Alabak, geure burua Jesus'en aufean zintzo agertu gendu.

Andoni Deuna.

Santu oneri Euzkal-efi guztian lez, gure efian be eraspen aundia jako; egin dautsogun bederatziefenera notintza edefa agertu izan da.

Azken-deya.

Igaro dan astean Agafe basetxeko Dañobeitia'tar Patirke andrea il da; Prantziskoren irugafengo anai zintzoa izan zan.

Amerika'tar Joseba-Iñaki be bai; Eleizakoak artu-ta egun batsuk gogofak, baño eroapentsu igaro ebazan ta beti gogoa adoretu eriotzea artzoko, Jaunaren nai-Santua zanian (G. B.). Atsekabe onetan sendi biyeri lagun gayakez.

Gexorik.

Egunokaz makalik dagoz Etxebafia'tar Mirentxu ta Izurieta'tar Katarine Jaunari arin osatu daitezcan otoi dagiyogun.

Zauritu.

Gure osagilearen semetxua, Bizi-

na'tar Paul okeferian ebilela jausi ta zauritu da; ene Karmele: non egon zara zeure lobatxua obeto ez jagoteko?

Entzun gero.

Asafe ikusi dodaz Kristiñau-Ikasbideko umetxuak. Abade Jaunak Jaungoiko-Zale-Bazkunako Mungian egiten dauan Kristiñau-Ikasbide jayaren iragarkia irakufi dautsiela-ta.

Eurok atzen geratuteak min emon dautsie. Ez lafitzoko esan dautsiet, Jaungoiko-Zale-Bazkuna Bilbao-Arzipretzagoz aitzuta eztala egongo-ta; asafea apur bat ibitzeko *mile eresoi* esan beafean izan nayagokie; ofaitio auxe esanaz buruari erainka.... baño ixildu jatazan. (1).

Alderdi au abertzaletasun aundia dan alderdi da Bizkayan, baño «euzkel-zaletasun» gitxi susmetan da: ta auxe untze gogofa Jaungoiko-Zale-Bazkunarentzat, Kristiñau-Ikasbide jai ori egiteko, Euzkeldunei euzkeraz bere ikur-burua ausi ezik. (2)

Abertzale aundia
Euzkel-zale ufia?
Jainko-zale lafia.

Jainko-zale zintzoa
Euzkel-zale beroa?
Abertzale sendoa.

«Kilometro baten bafuan galdu da euzkera? Amafean galdu da Jaungoikoa»; esakunak diñoana ez astu.

Eritarai dei bat.

Jesus-Biotzaren egunian emakume batsuk leyoetan zapi edefak zabaldu zituezan; beste batzuk, bafiz, zer dan eztakiela itaunka, ze egun da gaur leyo ofeik apaintzeko?

Jakiñun aundi batek ostera destañez emakumeari; zelan apaindu dozu ori e... enaz or Bizentineko zelai-txibiritia, ezta *jardiñetako* margaritea be, baño bai eleistar eta abertzale zintzoa! kendu eutsan bai, ifike ta bafeka ibilteko gogua Lezamafak! abefi guztiaeren buru dan Josuren Biotz eguna dala eztakizue ala?

Emakumiak.

Emakume-Abertzale-Batza ipinteko asmoz lan egiten asi jakuz, Garila'ren 10'gn. (J. L.) jai aundia egiteko asmuak dabiltzaz. Batzoki-zabal-kundea ta Ikufin-oneskundea be bai; diru bila ikufiña ordaintzeko. Ufengoan geyago ta argiago.

BETI ARDURAZ

(1) Ez estutu umetxuak: zueri be zeuen txandia elduko yatzue-ta. Ondo-ondo gertau, ordurakoze.

(2) Ikur-burua ausi? Ez orixe.

GIPUZKOA**Eibar.****Estibalitz'era.**

Biar, igandez, arabafak Andra Maria agurtzen daben toki ospetsu onetara joateko asmotan dagoz gure ertxandon edo pafokiko abeslariak. Txauburua eroango dabe zuzetzale. Ondo ibili ta egun alaya iagro.

Eibar'ko ikasleak.

Ikasteko gar aundia gure gastedi artean. Ona emen ikasten diarduen batzuk. Abadegeyak, saspi. Inkenieruak, bost. Osakintzarako, bat. Irakasletzarako, amabi neskatila ta mutil bat. Batxiler ikasten, befogetasei mutil eta amazortzi neskatila. Sal-eroskuntzan, amalau mutil eta lau neskatila. Onezaz gañera, or-emen sakabanatuta ikasten dabiltzenak edo izketa-ikaskuntza atzerian dagozanak. Neska - mutiletatik geyenok emengo lekaide-lekaineak gertautu dagoz. Gero esango dabe ezertarako ez dirala, ta efiari onurarik ez dakartsoela. Galdetu begie ume gurasoai onurarik dakartsen ala ez.

¡Afanoa afanoa, ego aldekoak zer ikasten ete dabe guri afupe edo kaberna-usaña artzoko!

Joan-etorriak.

Barzelona'tik uri onetara etofi da Agife'tar Pedro, begi-osatzale entzutetsua. Bere anai D. Ziriako'reninan jarteñ ei dau osatetxea. Adu onko izan bedi.

Paris'tik gurasoen ondoan aldi bat igaroteko oneratu da, Latxelin'en emazte Lanas'tar Rosario. Ongi etofi.

Alemania'ra, ikaskuntzara, joan zan eguaztenean Beistegi'tar Joseba, iskilugin ospetsua dan Kosme'ren semea. Asko ikasi.

Ezbearak.

Elgoibar ta Maltzaga bitartean ezbehar latza jazo zan Andoni deun egunez. Azkenengo burdia bidetik urtenda, txitxilipurdika joan zan ainbat bidean. Iru ilak eta ogetaka zaurituak izan ziran. Zaurituetatik beste bat il zan ufengo egunean, Ildakoak Jauna'k bere baitan artuko ebazala uste dogu. Sendiai atsekabean lagun gayakez. Zaurituak obeto doyzala diñue. Bai Elgoibar'ko, baita Eibar'ko osalari gustiak eta eparau gizosteak bere, alegiñan-alegin egin ebezan jausiak jaso ta zaurituak sendatzeko. Egun atan bertan. zubil batzukin jolasetan ziarduela, zubijak lapafast eginda, azpian artu eban emengo neskatila bat. Afilaga'ren ostetxera jaso eben.

Eguenean, Donosti'tik etofen bibel edo auto batek artu eban Izagife'tar Ester neskatilea. Afilaga'ren osate-xera jaso eben au be, naikoa gaizki. izan be, emendik igaroten dan beste bilbelez ta kalez-zier, itxu-mustuan, ibiltan dan beste umez, naikoa zeregin dabe aingeru zuzentzaleak unioñ biziak jaboteko.

Gexorik.

Gaizki-samar aurkitzen da Trokaila'tar Akilil. Laster osatzea opa dautsogu.

Ezkontzak.

Barikuan ezkondu zan Zarautz' en Txapartegi'tar.

Gaur larunbatez bustartu dira gure Sabin eta Zabala'tar Damene, Soraluze'ko neskatilea. Urte asko ta zorionsuetarako izan bedi euzko-abi bafi au.

Jayotzak.

Donostia'n alabatxo bat izan dabe gure erkide Befando'tar Eusebi ta G.Orbea'tar Montsefat'ek. Zorionak gurasoai.

Ispar baltzak.

Igandean il zan Enbeita'tar Nekane, ogetabots urteko neskatilia. Baita astartian be, Union akaitetxeko alabea. Guraso ta senideai gure tamal-agura.

San Juan jayak.

Aurki doguz gure uri onetako jai nagosiak. Udaleko jai batzordiak, eleiz at izango diran jayen egitaraua argitaldu dau. Eleiz usain bape barik, ordea. Ta ori baño mingafiago, Kopa deunaren jaya uldu dauku gure udalak. Ez deritxogu. Efiak ez al dauko aginpiderik. ¿Ta gure urian eleiztar diranak, ez al dira efitar? Ta onen uste ta eretxiak ez al dira bestienak bezin itzalgafi? ¿Zergaitik, orduan, oneik aintzat artu ez?

Ez uste, ofaitiño, eliz-jairik izango ez danik; izango dira, bai, ta goren-goak izan be. Aur-egunean, *Salve* ospetsua Eri-etxean, iluntziko zortzietrietan. Jon deun egunean meza nagosiaamaretan. Bai *salve*, bai *mezia*, gure eriko seme ta ereslari bikain Gisasola'tar Jon'enak izango dira.

Kristau-Ikasbide sariketa.

Sari nagosien jabe egin ziran: Beitia'tar Benite, 75 peseta. Gisasola'tar Ane Mari ta Loyola'tar Karmele, 50'na peseta. Lopez'tar Jose Mari, 25 peseta. Jafaitu olantxe.